17. Gastu finantzarioak	(6.051)	(6.452)
<i>Gastos financieros</i>		
b) Zorreatatik beste batzuekin	(6.051)	(6.452)
<i>Por deudas con terceros</i>		
A.2) EMAITZA FINANTZARIOA (16+17+18+19+20)	(6.051)	(6.452)
RESULTADO FINANCIERO (16+17+18+19+20)		
A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA (A.1+A.2)	----	----
RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS (A.1+A.2)		
A.4) EKITALDIKO EMAITZA (A.3+21)	----	----
RESULTADO DEL EJERCICIO (A.3+21)		

Zumaiako Kirol Portua, S.A.

USTIAPEN AURREKONTUA.
PRESUPUESTO DE EXPLOTACIÓN.

EPIGRAFEAK EPIGRAFES	2009
	Euroak / Euros
GASTUAK GASTOS	
Pertsonal-gastuak Gastos de personal	15.000
Ustiapeneko bestelako gastuak Otros gastos explotación	153.615
Amortizazioak Amortizaciones	460.648
Gastu finantzarioak Gastos financieros	6.051
Guztira Total	635.314
DIRU-SARRERAK INGRESOS	
Negozio-zifra Cifra de negocios	174.666
Diru-laguntzen amortizazioa Amortización subvenciones	460.648
Guztira Total	635.314



NEIKER, S.A.



NEIKER – INSTITUTO VASCO DE INVESTIGACION Y DESARROLLO AGRARIO, S.A.**1. SARRERA**

NEIKER-NEKAZAL IKERKETA ETA GARAPENERAKO EUSKAL ERAKUNDEA Sozietate Publikoa 1998ko urtarrilaren 1ean sortu zen eta gaur egun Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren barruan dago uztailaren 22ko 177/97 Dekretuaren aginduz, dekretu horrek Sozietate horri atxiki baitzion nekazaritza-ikerketarako zerbitzuaren (CIMA/SIMA) kudeaketa. NEIKERen egoitza soziala Derioko (Bizkaia) Berreaga kaleko 1 zenbakian dago, eta bertan gauzatzen dira Sozietateari (lehenagoko SIMAri) berez dagozkion jardueretako batzuk; gainerako jarduerak, berriz, Arkauteko Granja Ereduan (Lehenagoko CIMA), Iturrietako Finkan eta Gaunako (Araba) La Ilarrako Finkan egiten dira.

Autonomia Estatutuaren 10.16 artikuluan ezarritakoaren arabera, EAEk erabateko eskumena du, Estatuarekin koordinazioan, ikerketa zientifiko eta teknikoaren arloan; izan ere, Nekazaritza Ikerketaren arloko Estatuaren zerbitzuak irailaren 26ko 2756/1980 E.D.aren bidez eskualdatu baitzaizkio; Ozeanografia ikerketak, berriz, abuztuaren 3ko 2241/1981 E.D.aren bidez; Abere Ekoizpen eta Osasunekoak uztailaren 24ko 2030/1981 E.D.aren bidez; Landare Osasunekoak irailaren 26ko 2752/1980 E.D.aren bidez eta Mintegiko Hazi eta Landare Zerbitzuak maiatzaren 8ko 839/1985 E.D.aren bidez.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak CIMA eta SIMA izeneko bere zentro propioak erabili zituen 1998ko urtarrilaren 1a arte nekazaritzako I+Garen sustapen-politika aurrera eramateko. Denboraldi horretan, Nekazal Ikerketa eta Hobekuntzarako Zentroak (CIMA) eta Nekazal Ikerketa eta Hobekuntzarako Zerbitzuak (SIMA) EAEko nekazari, abeltzain eta baso-jabeentzako teknologia berrienak garatu, egokitu eta zabaldu zituzten.

Horrela, sortu zen uanean, lehen aipaturiko 177/97 Dekretuaren bidez NEIKERek bere gain hartu zuen nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintza arloko ikerketa guztia, eta azkenik, martxoaren 13ko 50/2001 Dekretuaren bidez, NEIKERi esleitu zitzaion Mintegiko Hazi eta Landare Zerbitzuaren Kudeaketa, Gasteizko Arana auzoko laborategiak eta Gaunako La Ilarra finkak burutzen zituzten jarduerak hartuz, bere funtzionamendu-gastua eta langileria barne zirela.

Gaur egun NEIKER ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuaren bidez atxikitzen zaio Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari.

2. ERAKUNDEAREN JARDUERA OROKORRAK

Gobernu Kontseiluak, 1997ko maiatzaren 27ko batzarraldian, estatutuaren 3. artikulua aldatzeko erabakia hartu zuen, eta era honetara idatzita geratu zen: "Sozietatearen xedea hurrengo jarduera hauek burutzea izango da:

- Nekazaritza, ur eta ingurumen zientzien arloan eta oro har baliabide naturalenean, baita nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreko teknologian ere, ikerketa jarduerak burutu eta azterlanak egitea.
- Nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreko Administrazio Publikoek, enpresei, ustiatzei eta industriei aholkularitza teknikoa ematea.

1. INTRODUCCIÓN

La Sociedad Pública NEIKER-INSTITUTO VASCO DE INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO AGRARIO se constituyó el 1 de enero de 1998, dependiendo del hoy Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, por Decreto 177/97 de 22 de Julio que adscribía la gestión del servicio de investigación agraria (CIMA/SIMA) a dicha Sociedad. El domicilio social de NEIKER se sitúa en Berreaga kalea, 1, Derio (Bizkaia), lugar donde se desarrollan parte de las actividades propias de la Sociedad (antiguo SIMA), desarrollándose la otra parte de las actividades en el Granja Modelo de Arkaute (antiguo CIMA), la Finca de Iturrieta y la Finca de la Ilarra en Gauna (Araba).

La CAE posee competencia exclusiva en materia de investigación científica y técnica en coordinación con el Estado, al amparo de los dispuesto en el artículo 10.16 del Estatuto de Autonomía, habiéndose traspasado los servicios del Estado en materia de Investigación Agraria por R.D. 2756/1980 de 26 de Septiembre, de Investigación Oceanográfica por R.D. 2241/1981 de 3 de Agosto, de Producción y Sanidad Animal por R.D. 2030/1981 de 24 de Julio, de Sanidad Vegetal por R.D. 2752/1980 de 26 de Septiembre, Servicio de Semillas y Plantas de Vivero por R.D. 839/1985 de 8 de mayo.

De hecho, el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación había materializado su política de fomento de la I+D agraria hasta el 1 de enero de 1998 a través de sus propios centros CIMA y SIMA. En este período el Centro de Investigación y Mejora Agraria (CIMA) y el Servicio de Investigación y Mejora Agraria (SIMA) habían desarrollado, adaptado y difundido las más modernas tecnologías al servicio de los agricultores, ganaderos y propietarios forestales de la CAE.

Así, en el momento de su constitución se articula en NEIKER toda la investigación agrícola, ganadera y forestal a través del Decreto 177/97 ya mencionado, adscribiéndose finalmente a NEIKER, por Decreto 50/2001 de 13 de marzo la gestión del Servicio de Semillas y Plantas de Vivero, en concreto las actividades que desarrollaba el laboratorio sito en el barrio de Arana de Vitoria-Gasteiz y la finca de La Ilarra de Gauna, con su gasto de funcionamiento más su dotación de personal.

En la actualidad la adscripción de NEIKER al Departamento de Agricultura Pesca y Alimentación se hace a través del Decreto 8/2005 de 27 de Junio.

2. ACTIVIDADES GENERALES DE LA ENTIDAD

El Consejo de Gobierno en su sesión de 27 de mayo de 1997 adoptó el Acuerdo de modificación del artículo 3 de los Estatutos, quedando redactado como sigue: "La sociedad tendrá por objeto la realización de las siguientes actividades:

- Desarrollar actividades de investigación y realizar estudios en materia de ciencias agrarias, acuáticas, ambientales y en general de los recursos naturales, así como en tecnología agraria, pesquera y alimentaria.
- Prestar asesoramiento técnico a las Administraciones Públicas, a las empresas, explotaciones e industrias de los sectores agrario, pesquero y alimentario.

- Nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreko teknika eta teknologia berriak bereganatu eta aplikatu ahal izateko behar diren prestakuntza, gaikuntza eta espezializazio profesionaleko prozesuak ezartzea.
- Kalitatearen kontrol, jarraipen eta ebaluazioko jarduerak burutzea eta arau eta baldintza teknikoak betetzea nekazaritza, arrantza eta elikadurako produktuen ekoizpenean, eraldakuntzan eta merkaturaketan.
- Nekazaritza, arrantza eta elikadurako produktuen sustapen eta publizitateko jarduerak burutzea.

Bere helburu soziala betetzeko, sozietateak interes bereziko enpresen kapital sozialean parte hartu ahal izango du kasu bakoitzean zehaztuko diren baldintzetan.

Erakundearen Egitekoa, beraz, ikerketa estrategiko eta aplikatuko jarduerak burutzea izango da (funtsezko ikerketan oinarrituta, epe ertain eta laburrean helburu berezi praktikoei buruzko ezagutza berriak lortzeko beharrezko esperimendazio-lanak egitea), eta bestalde nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintza sektoreei eta ingurune naturalari begira, garapen teknologikoan, transferentzia teknologikoan, aholkularitza teknikoan eta zerbitzuetan parte hartzea.

Sozietateak garrantzi handiko proiektuak eta azterlanak egiten jarraitzen du; horri esker nekazaritzako teknologia arloan duen buruzagitzari eutsi eta zerbitzu teknologiko batzuetan harreman sektorial garrantzitsua lortzen du:

- Landareen hobekuntza genetikoari dagokionez, gaixotasunak hobeto jasan eta merkatura hobeto egokitzen diren barietate berriak lortzeko lanean ari da, bereziki patata, artoa eta intsinis pinua barietateekin. Era berean, bertoko landare-materiala abiapuntutzat hartuz hobetutako barietateen germoplasma mantendu eta baratzezaintza-sektoreari eskaini zaio (Gernikako piperra, Ibarako piparra, Tolosako, Gernikako eta Arabako indabak eta abar). Bestalde, abereen hobekuntza genetikoari dagokionez, esnearen produkzio eta osaera ezaugarrietako balioespen genetikoak egin dira latxa eta Karrantza arrazetako esne-ardietan. Halaber, ezaugarri desberdinen balioespen genetikorako ereduak hobetzeko lanean ari dira, eta horiek guztiak bilduko dituen indize bat prestatzen. Behi frisoien erditze-erraztasunaren balioespen genetikoak ere egiten ari dira, eta haragitarako behietan ekoizpen-ezaugarrien ebaluazio sistematiko bat ezartzeko alde zuzeneko azterketak egiten ari dira.
- Landare-ekoizpenaren arloan, laborantza estentsibo eta industrialak, mahastizaintza eta basozaintza lantzen ari dira, baita baratzezaintza ere, laborantza hidroponikoak ere barne. Garrantzia berezia ematen zaie laborantza energetikoei eta alternatiboiei, eta baita ere intsinis pinuaren ekoizpena hobetzeko estazioaren kalitateari buruzko azterketari. Abelazkuntzari dagokionez berriz, espezie hausnarkarien produkzio-sistemen gaineko azterlanak egiten ari dira, elikagaien hobekuntzari arreta berezia emanez, bazka-landare, larre eta mendi-larrean produkzioari buruzko azterketak eginez bereziki; eta horrez gain, ustiategiak hobeto kudeatzeko tresnak garatzen ditu irizpide ekonomikoak eta iraunkorrak erabiliz.

- Establecer los procesos de formación, capacitación y especialización profesional que permitan la asimilación y aplicación de nuevas técnicas y tecnologías en los sectores agrario, pesquero y alimentario.

- Desarrollar actividades de control, seguimiento y evaluación de la calidad y el cumplimiento de las normas y requisitos técnicos en las actividades de producción, transformación y comercialización de productos agrarios, pesqueros y alimentarios.

- Desarrollar actividades de promoción y publicidad de productos agrarios, pesqueros y alimentarios.

Para el cumplimiento de su objeto social, la sociedad podrá participar en el capital social de empresas de particular interés en las condiciones que en cada caso se determinen.

En consecuencia, la Misión de la Entidad será desarrollar actividades de investigación estratégica y aplicada (entendiendo éstas como los trabajos de experimentación que, basados en la investigación básica, se realizan para adquirir nuevos conocimientos en objetivos específicos prácticos a medio y corto plazo, respectivamente) y participar en el desarrollo tecnológico, transferencia tecnológica, asesoramiento técnico y servicios para el sector agrícola, ganadero, forestal y del medio natural.

La Sociedad continúa realizando estudios y proyectos de gran relevancia, lo que le permite mantener el liderazgo tecnológico agrario y una importante relación sectorial en determinados servicios tecnológicos:

- En mejora genética vegetal se trabaja en obtención de nuevas variedades resistentes a enfermedades y mejor adaptadas al mercado, en especial, en patata, maíz y pino radiata. Se mantiene y transfiere al sector hortícola el germoplasma de variedades mejoradas a partir de material vegetal autóctono (pimiento de Gernika, guindilla de Ibarra, alubia de Tolosa, Gernika y de Álava, etc.) En mejora genética animal se realizan las valoraciones genéticas para los caracteres de producción y composición de la leche en las razas ovina Latxa y Carranzana. Asimismo, se trabaja en la optimización de los modelos de valoración genética de diferentes caracteres y en la elaboración de un único índice que combine a todos ellos. También se realizan las valoraciones genéticas del carácter facilidad de parto para el vacuno frisón y en vacuno de carne se están haciendo los análisis preliminares para establecer una evaluación sistemática de los caracteres productivos.
- En producción vegetal se trabaja en agronomía de cultivos extensivos e industriales, viticultura y selvicultura, así como en horticultura, incluidos los cultivos hidropónicos. Se presta especial atención a los cultivos energéticos y alternativos, así como al estudio de la calidad de estación para mejorar la producción de pino radiata. En producción animal se llevan a cabo estudios en sistemas de producción de especies rumiantes, incidiendo en la optimización de los recursos nutricionales, en particular, a través de estudios en producción forrajera, pratense y de pastos de montaña, y desarrollando herramientas que permitan una mejor gestión de las explotaciones ganaderas de acuerdo a criterios económicos y de sostenibilidad.

Landare-osasunaren eremuan, epidemiologia landu eta EAEko labore eta baso-espezia interesgarriak izaten dituzten izurrite eta gaitzak detektatu eta kontrolatzeko lanak egiten dira, organismo patogenoak aurkitzeko beharrezkoak diren diagnosi metodoak ere landuz eta arreta berezia eskainiz izurrite eta gaixotasunen kontrol biologikoari. Halaber, abere-osasunaren alorrean, lanean ari dira diagnostikorako metodo azkar eta eraginkorrak prestatzen, EAEn interes handiena duten abereen gaitzak kontrolatu eta ezabatu ahal izateko, eta gainera, EAEko Osasun Publikoarentzat ere egiten dira azterketak. Alde horretatik, mundu mailan gizartearen eragin dramatiko handiena duten bi zoonosiak, hala nola Behien Entzefalopatia Espongiformea (BSE) eta hegazti gripe oso patogenoa (HG-OP) antzemateko teknika eraginkorrak dituzten ari dira, baita Q sukarra eta salmonellosia. Hausnarkarien kasuan, ekoizpenean eragina duten gaitzak kontrolatzeko oinarriak ezarri dira; aipatu diren artean daude paratuberculosis, Border gaixotasuna, Maedi gaixotasuna edo mingain urdina.

Nekazaritza-sistematan usadiozko ekoizpen integratu eta ekologikoaren sistemak ebaluatu dira, horien iraunkortasuna aztertu eta degradazio-arriskua (higadura, kutsadura eta abar) neurtu da, eta era horretan, sistema horiek iraunkortasun parametroetara hobeto egokitzeko alternatibak proposatu dira. Agrosistemen osasuna eta horrelakoek gizarteari eskaintzen dizkieten zerbitzuak neurtzen ari dira, besteak beste, lurzoruan karbonoa finkatuz eta baso-landaketak eginez.

Bioteknologiari esker ikerketa eta proiektu berriak garatzen ari dira eta aldi berean EAEko nekazaritzako elikagaien sektorerako oso interesgarriak diren prozesuak eta produktuak lantzen ari dira. Proiektuak honako arlo hauetan garatzen dira: Genomika eta Proteomika aplikatua, Ingeniaritza Genetikoak, Ingurumen Bioteknologia eta Biosegurtasuna, eta horiez gain zerbitzuak eskaintzen ari dira bioteknologiaren hainbat arlotan (barietateen identifikazioa, GEOk antzeman eta horien genotipoak zehaztu).

Aipaturiko arloetan NEIKERek gauzatzen dituen proiektuak modalitate ezberdinetan ageri dira:

- **I+G Proiektuak:** proiektu estrategikoak, NEIKER berarenak edo erakunde publikoekin lankidetzan burutuak, hala nola, EB, Zientzia eta Berrikuntzarako Ministerioa, INIA, FIS, EAEko Administrazioarekin eta abarrekin elkarlanean eginak. Zientzia eta Teknologia arloko zentro gisa dugun izaera islatzen duten proiektuak dira eta aztergai ditugun sektoreen batez besteko ezagutzen gainera jartzeko modua eskaintzen digute, gerora sortuko den eskariari aurre egiteko, detektaturiko beharriari erantzuteko gaitasuna geureganatzeko edo ezagutza horiek besteie ezagutarazteko teknologia bihurtzeko.
- **Zerbitzu Teknologikoak:** Elkarrekin profesional batekin, kooperatiba batekin edo enpresa edo enpresa-talde batekin egindako kontratupeko proiektuak, ezaguna dugun eta ezagutza praktikoaz nola esperientziak menperatzen dugun teknologia transferitzeko. Proiektu horiek organismo publikoek, estatalek nahiz autonomikoek, finantzatuak izan daitezke.

Jarduera hauek bete-betean daude indarrean; izan ere, NEIKERen jarduera-eremuaren ezaugarriak bat datoz Eusko Jaurlaritzak bere planetan ezarri dituen ildo nagusiekin, hala nola Landa Garapeneko 2007-2013 Eskualdeko Programan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza 2010 Planean, Euskadiko Baso Planean (1994-2030), eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak garatzen dituen Azpisektoreetako I+G Plan Estrategikoetan.

En sanidad vegetal la actividad se orienta a la epidemiología, diagnóstico y control de plagas y enfermedades en cultivos y especies forestales de interés en la CAE, realizando la puesta a punto de métodos de detección de los organismos patógenos, y prestando especial atención al control biológico de plagas y enfermedades. Asimismo, en sanidad animal se trabaja también en la puesta a punto de métodos de diagnóstico, rápidos y eficaces, para el control y la erradicación de las enfermedades de mayor interés productivo así como para la Salud Pública en la CAE. En particular, se continúa poniendo a punto técnicas más eficientes para la detección de dos de las zoonosis de impacto social mundial más dramático de los últimos años como son la Encefalopatía Espongiforme Bovina (EEB) y la Influenza Aviar altamente patógena (IAAP), así como de otras como la Fiebre Q y la Salmonelosis. Además, se establecen las bases técnicas para el control de enfermedades de interés productivo en rumiantes como la paratuberculosis, el border, el maedi y la lengua azul.

Por otro lado se evalúan los sistemas de producción tradicional, integrada y ecológica, estudiando su sostenibilidad y cuantificando los riesgos de degradación (erosión, contaminación, etc.) de los mismos, planteando alternativas que permitan una mejor integración de dichos sistemas dentro de los parámetros de sostenibilidad. Se está trabajando en la evaluación de la salud de los agroecosistemas y en la valoración de los servicios que proveen a la sociedad, como por ejemplo, a través de la fijación de carbono en suelos y plantaciones forestales

La aplicación de la biotecnología está permitiendo desarrollar nuevos estudios y proyectos, así como procesos y productos de alto interés para el sector agroalimentario de la CAE. Los proyectos se desarrollan en las áreas de Genómica y Proteómica aplicada, en Ingeniería Genética, Biotecnología Ambiental y Bioseguridad y aparte se ofrecen Servicios en diferentes campos de la biotecnología (Identificación varietal, genotipado y detección de OMGs).

Los proyectos que desarrolla NEIKER en estas áreas se presentan bajo diferentes modalidades:

- **Proyectos de I+D:** proyectos estratégicos, propios de NEIKER o en colaboración con instituciones públicas como la UE, Ministerio de Ciencia e Innovación, INIA, FIS, Administración de la CAE, etc. Son los proyectos que representan nuestro carácter como centro científico y tecnológico y nos permiten situarnos por delante del conocimiento medio de los sectores objeto, con el fin de hacer frente a la demanda futura, dotarnos de capacidad de respuesta ante las necesidades detectadas y transformar el conocimiento en una tecnología transferible.
- **Servicios Tecnológicos:** Proyectos bajo contrato con una asociación profesional, cooperativa, empresa o grupo de empresas a fin de transferir una tecnología conocida y dominada tanto por el conocimiento práctico como por la experiencia. Estos proyectos pueden ser financiados por diferentes organismos públicos autonómicos y estatales.

Estas actividades tienen plena vigencia, ya que el entorno donde NEIKER desarrolla su actividad se caracteriza por las grandes líneas marcadas por el Gobierno Vasco en el Programa Regional de Desarrollo Rural 2007-2013, Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2010, Plan Forestal Vasco (1994-2030), así como los Planes Estratégicos Subsectoriales de I+D, que elabora el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación.

Jarduera horiek guztiak etengabe aldatzen ari den ingurune batean burutzen dira. Hainbat dira bilakaeraren eragileak: nekazaritza-ustiatzearen egituraketa, Europako integrazioa, nazioarteko hitzarmenak, aldaketa sozialak, kontsumo-joerak, berrikuntza teknologikoa, bezeroen eskakizunen eta profesionaltasun-mailaren gehikuntza eta abar. Aldaketa horiek inguru dinamiko bat sorrarazten ari dira, eta beraz, gure bezeroei produktu eta zerbitzu bereziak, kalitatekoak, eta lehia-prezioak eskaintzea funtsezkoa da sektorearen geroa finkatzeko, negozio-kopuru handiagoa modu egonkorrean sortzeko eta gure irudiari balio handiagoa emateko lehen sektorearen aurrean eta instituzioen aurrean.

3. EKINTZA NAGUSIAK 2008 URTEAN

Elikadura eta nekazaritzako zientzien arloan NEIKER gerok eta begirune handiagoa lortzen ari da ikerketa eta teknologien transferentziaren barruan. Datu orokor esanguratsuenak hauek dira:

- Urte anitzeko ikerketa-proiektuak egiteko eta teknikariak eta ikertzaileak kontratatzeke egiten diren finantzaketa publiko lehiakorreko deialdietan jasotako sarrerek gora egin dute. Parke zientifiko eta teknologikoetan egindako I+G proiektuentzako I+G+B Plan Nazionalaren (2004-2007) Laguntza Programaren bidez jasotako finantziarioari esker, azpiegitura zientifiko-teknikoak erosteko eta laborategiak eta instalazioak berritzeko aukerak areagotu egin dira, EAEko Administrazioaren eta Estatuko Administrazio Orokorren laguntzarekin.
- EBak finantzaturiko proiektuetan, bereziki, diru-sarreraren zenbatekoa handitu egin da nabarmenki azkeneko urte honetan. Zazpigarren Esparru Egitarrak (2007-2013) eskaintzen dituen finantzabide berriek ikuspegi bateratuagoak eta bazkide-kopuru handiagoak behar dituzte; horregatik, NEIKER estrategia berriak erabiltzen hasi da Europako Ikerketa Eremuan duen partaidetza areagotzeko.
- Aipatzekoa da nekazaritza-elikagaien sektoreko enpresek eskatuta burutzen diren I+G proiektuen gorakada. Bereziki azpimarratzekoak dira NEIKERek CENIT programari egindako proiektu-proposamenak, azken batean Neiker-ek I+Gean duen gaitasuna aitortzeko modu bat baita sektore horretako enpresa garrantzitsuenen aldetik.

Orain arte bezala nekazaritza sektoreko ustiatzei eta nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresei laguntza tekniko zabala eskaintzen diegu NEIKEReko laborategien bidez. Arkauteko Landare Osasuneko instalazioak erabiltzeko moduan daude erabat, bai laborategia eta baita 2. Mailako Segurtasun Biologikoko Negutegia ere berrogeialdiko izurriak aztertzeko. Era berean, mingain urdinaren diagnostikorako PCR entseguak egiten ari dira, eta lehenengo aldiz, *Culicoides* imicolaren presentzia aurkitu da EAEn, hots, gaixotasun horren 1 serotipoaren bektorea. Entzefalopatia Espongiforme Kutsakorrik dagoen jakiteko proba azkarrak egiten jarraitzen dugu 3. Mailako Segurtasun Biologikoko Laborategian, Derion, eta bertan egiten dira, baita ere, hegazti gripea antzemateko probak; instalazio horiek erabiltzen dira, halaber, hausnarkarien artean infekzio esperimentaleko entseguak egiteko.

Instalazioak handitu eta zentzuz erabiltzeko prozesuak aurrera jarraitzen du, bai laborategikoak, negutegikoak eta bai bulegoetakoak ere, lanean segurtasun eta funtzionaltasun handiagoa lortzeko.

Todas estas actividades tienen lugar en un entorno en continua evolución como consecuencia de la estructuración de las explotaciones agrarias, la integración europea, los acuerdos internacionales, los cambios sociales, las pautas de consumo, la innovación tecnológica, el aumento de las exigencias y nivel profesional de los clientes, etc. Estos cambios están dando lugar a un entorno dinámico, por lo que aportar a nuestros clientes productos y servicios diferenciados, de calidad y a un precio competitivo es fundamental para asegurar el futuro sectorial, generar de forma estable un mayor volumen de negocio y una revalorización de nuestra imagen ante el sector primario y ante las instituciones.

3. PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE 2008

NEIKER sigue consolidándose como referente en el ámbito de la investigación y transferencia tecnológica dentro del campo de las ciencias agroalimentarias. Los datos generales más significativos son los siguientes:

- Han aumentado los ingresos procedentes de las convocatorias de financiación pública competitiva para la ejecución de proyectos de investigación plurianuales y para la contratación de técnicos e investigadores. La reforma de instalaciones, laboratorios y adquisición de infraestructura científico-técnica ha tenido un fuerte impulso con la financiación obtenida a través del Programa de Ayudas del Plan Nacional de I+D+I (2004-2007) para proyectos de I+D realizados en Parques Científicos y Tecnológicos, así como con el apoyo de la Administración de la CAE y de la Administración General del Estado.
- En particular, el volumen de ingresos en proyectos financiados por la UE ha aumentado también de forma notable en este año. Los nuevos instrumentos de financiación del Séptimo Programa Marco 2007-2013 requieren de enfoques más integrados y mayor número de socios, por lo que NEIKER continúa adoptando nuevas estrategias para aumentar su participación en el Espacio Europeo de Investigación.
- Es de destacar, el aumento de los proyectos de I+D que se llevan a cabo a solicitud de las empresas del sector agroalimentario. En especial, se debe mencionar la participación de NEIKER en propuestas de proyectos al programa CENIT, en lo que representa de reconocimiento por parte de las grandes empresas tractoras de la capacidad de Neiker en I+D.

Se continúa ofertando una amplia asistencia técnica a las explotaciones del sector agrario y empresas del sector agroalimentario a través de los laboratorios de NEIKER. Están plenamente operativas las instalaciones de Sanidad Vegetal de Arkaute, tanto el laboratorio como el nuevo invernadero de Seguridad Biológica Nivel 2 para el estudio de plagas de cuarentena. Asimismo, se realizan los ensayos de PCR para el diagnóstico de lengua azul, habiéndose confirmado por primera vez la presencia de *Culicoides* imicola en la CAE, vector del serotipo 1 de la enfermedad. Se siguen realizando las pruebas rápidas de Encefalopatías Espongiformes Transmisibles y de gripe aviar en el Laboratorio de Seguridad Biológica de Nivel 3, en Derio, instalaciones que se utilizan también para realizar ensayos de infección experimental en rumiantes.

Se ha dado un notable impulso al proceso de ampliación y racionalización de las instalaciones, tanto de laboratorios como de invernaderos, así como de las áreas de despachos para ganar una mayor seguridad y funcionalidad en el trabajo.

Europako eta beste herrialde batzuetako erakunde garrantzitsuekin ikerketa eta prestakuntzarako hitzarmenak sinatzen ari dira, eta NEIKERen estrategia ikerketa-sareetan eta teknologia-plataformetan parte hartzea izango da. NEIKER 6. GUNEaren eta TECNALIA Korporazio Teknologikoaren barruan dago, merkatu, teknologia eta barne-kudeaketako eredu eta estrategia hobekak lortzeko helburuarekin. Gainera, elikadura eta nekazaritza arloko beste euskal entitate batzuekin batera NEIKERTEK sozietatea sortu du teknologien nahiz ikerketa-jardueretatik lortutako ezagutzak jakitera emateko moduak sustatu eta errazteko. Aipagarria da I+G proiektuetako emaitzei balioa emateko egindako ahaleginak, izan ere, hainbat hitzarmen sinatu dira zenbait enprekin abere-osasunaren arloan txertoak garatu eta diagnosi-kitak garatzeko; biosentsoreak ekoizteko; prozesu bioteknologikoen bidez entzimak garatu eta nekazaritza eta elikadura nahiz osasunaren arloetan erabili ahal izateko; nekazaritza-elikagaien industrietako hondakinak molekula interesgarriak aprobetxatzeko; "in vitro" laborantza-tekniken bitartez landare-espezieak ugaltzeko, eta horrela, aipatu sektoreetako enpresei onurak ekarri. Eta gainera, aurrekontuari dagokionean ahalegina egin da arlo horietako ikerketa-ildoak indartzeko, intsinis pinuaren landare hobetua ekoizteko baso-sektorearentzat eta mahastizaintzan izurriak eta gaitzak kontrolatzeko.

Lortu duen AENOR ziurtagiriak egiaztatzen du Kalitatearen Kudeaketarako Sistema ondo egokitzen dela nekazaritzako elikagaien eremuan I+Grako Proiektuen eta Transferentzia Teknologikoaren Kudeaketarako UNE-EN ISO 9001:2000 Espainiako Arauak ezartzen dituen baldintzetara (nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta natur ingurunearen sektoreak), eta horri esker NEIKERen baliabideak eraginkortasun handiagoarekin erabili ahal izango dira. Gainera, ENACen bitartez (Ziurtagiriaren Erakunde Nazionala) 13 azterketa-teknika egiaztatzen dira UNE-EN ISO 17025 Arauak dioenaren arabera, azterketetako emaitzak gero eta fidagarriagoak izatea lortu nahi baita.

Langileria-gastuek gora egin dute, aurreko urtearekin alderatuta langile finkoen plantilla sendotuz joan delako eta kanpoko diru-sarreraren bidez finantzaturako proiektuak ere gehiago direlako. Kontrataturiko langileek (14 lagun) Entzefalopatia Espongiforme Kutsakorren diagnostikoak egiten jarraitzen dute. Doktoreak Laneratzeko Kontratuen deialdietan parte hartzen jarraitzen dugu, Autonomia Erkidegoen menpeko Nekazaritza eta Elikadura arloetako Ikerketa Zentro Publikoetan Ikertzaileak Kontratatzeko 2001eko irailaren 25eko Aginduari jarraituz, eta laster argitaratu behar diren beste agindu batzuen babesean. Langileria gastuetarako kontusailan 6.771 mila euro jarri ziren 2007rako, eta kontu-sail hori 7.679 mila eurora igo da, hau da, %13,41 egin du gora. 2008ko helburuetako bat NEIKER-en langile-talde finkoa sendotzea izan da, eta horrela, erakundeko 102 lanpostu finkoak betetzea lortu da.

Hala ere, soldata-masaren eta plantillaren igoera Erakunde eta Sozietate Publikoentzako Aurrekontuen Legean ezarritako irizpideen arabera egiten da.

NEIKERREN kudeaketa hobetu eta baliabide erabilgarriak ahalik eta ongien erabiltze aldera, 2006-2009 Plan estrategikoak aurreikusitako antolakuntza-egitura eta prozesuak ezartzeko jarduerak burutu dira 2008. urtean, eta era berean, horrekin batera, Kudeaketa Plana, Marketingekoa, Teknologikoa, Inbertsioena, Heziketakoa eta beste hainbat prestatu eta horien jarraipena egin da. Aipatzekoa da Berrikuntzaren Bulegoa abian jarri izana, aipaturako prozesu horiek guztiak sustatzeko eta indartzeko.

Se están firmando convenios de investigación y de formación con importantes instituciones tanto europeas como de terceros países y se orienta la estrategia de NEIKER hacia la participación en redes de investigación y plataformas tecnológicas. NEIKER forma parte de GUNE 6 y de la Corporación Tecnológica TECNALIA, con el objetivo de mejorar los modelos y estrategias de mercado, tecnología y gestión interna. Además ha participado, junto a empresas vascas del sector agroalimentario, en la constitución de la sociedad NEIKERTEK con el fin de promover y facilitar la transferencia de tecnologías y del conocimiento generado en las actividades de investigación. Es de destacar el esfuerzo realizado para poner en valor los resultados de los proyectos de I+D, a través de acuerdos con empresas para el desarrollo de vacunas y kits de diagnóstico en el campo de la sanidad animal; la producción de biosensores; la producción de enzimas mediante procesos biotecnológicos para su utilización en los ámbitos agroalimentario y de la salud; el aprovechamiento de moléculas de interés en residuos de industrias agroalimentarias; la multiplicación de especies vegetales a través de las técnicas de cultivo "in vitro", beneficiando así a las empresas de los sectores mencionados. A su vez, se ha hecho preciso realizar un esfuerzo presupuestario para reforzar las líneas de investigación en estos campos, así como en el de la producción de planta mejorada de pino radiata para el sector forestal y el control de plagas y enfermedades en viticultura.

Se dispone del certificado AENOR de que el Sistema de Gestión de la Calidad es conforme a las exigencias de la Norma Española UNE-EN ISO 9001:2000 para la Gestión de Proyectos de I+D y de Transferencia Tecnológica en agroalimentación (sectores agrícola, ganadero, forestal, y medio natural), lo que permitirá aumentar la eficacia en la utilización de los recursos de NEIKER. Además, se han acreditado a través de ENAC (Entidad Nacional de Acreditación), 13 técnicas analíticas bajo la Norma UNE-EN ISO 17025, prosiguiendo con la búsqueda de una mayor fiabilidad en los resultados analíticos.

Los gastos de personal han experimentado un ascenso debido a la progresiva consolidación de la plantilla de personal fijo respecto al año anterior, así como al mayor número de proyectos en curso financiados a través de ingresos externos. Se prosigue con el personal contratado (14 personas) para la realización del diagnóstico de las Encefalopatías Espongiformes Transmisibles. Se continúa participando en las convocatorias de Contratos de Incorporación de Doctores, que se realizan al amparo de la Orden de 25 de septiembre de 2001 para la Contratación de Investigadores en Centros Públicos de Investigación Agraria y Alimentaria dependientes de las CCAA y las nuevas órdenes que saldrán próximamente. La partida de personal ha pasado de 6.771 miles de euros en 2007 a 7.679 miles de euros, lo que supone un porcentaje del 13,41% de aumento. Uno de los objetivos del año 2008 ha sido culminar la consolidación de la plantilla de personal fijo de NEIKER hasta cubrir los 102 puestos de la sociedad con personal fijo.

No obstante, el crecimiento de la masa salarial y de plantilla se realiza conforme a los criterios establecidos en la Ley de Presupuestos para Entes y Sociedades Públicas.

En aras de mejorar la gestión de NEIKER y optimizar los recursos disponibles, durante el 2008 se ha continuado con la implantación de las estructuras y procesos organizativos previstos en el Plan Estratégico 2006-2009 y consecuentemente la elaboración y seguimiento de los correspondientes Planes de Gestión, Marketing, Tecnológico, Inversiones, Formación, etc. Es de destacar la puesta en marcha de la Oficina de Innovación para impulsar y dar apoyo a todos los procesos mencionados.

IZAERA OROKORREKO HELBURU BATZUK BETE DIRA

Enpresak 2008an gauzatu dituen ekintzei buruzko datu nagusiak hurrengo taulan jasotzen dira:

I+G PROIEKTUAK ETA TRANSFERENTZIA TEKNOLOGIKOA

CUMPLIMIENTOS DE OBJETIVOS DE CARÁCTER GENERAL

Los principales datos del número de proyectos de I+D de la empresa durante 2008 se resumen en el siguiente cuadro:

PROYECTOS I+D Y TRANSFERENCIA TECNOLÓGICA

	Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco	E.B. U.E.	MCYT MCYT	Kontratuak Enprekin Contratos con Empresas
Nekazaritza Berrikuntza Innovación Agraria	36	8	27	16
Medio Ambiente Ingurumena	9	1	7	15
Adostasnez Ebaluazioa Evaluación de la Conformidad	6	--	--	--

4. 2009rako HELBURU OROKORRAK ETA HORIEN KOPURUAK

HELBURU OROKORRAK

NEIKERek burutzen dituen zerbitzuen alorrean, helburu nagusiak hauexek dira:

- Enpresaren eredia finkatzen jarraitzea sozietatearen izaera pribatu-profesionaleko kudeaketaren bidez, eta kudeaketa horretan lehenetsuna izango duten parametroak honako hauek izango dira: eraginkortasuna, efikazia, kostuak, ekoizpen-gaitasuna, kalitatea, errentagarritasun soziala eta merkataritza-estrategia. Horretarako 2009. urtean Kudeaketa Plan berri bat ezarriko da NEIKERentzat onartutako plangintza estrategikoaren arabera. Plangintza horrek antolamendu-eredu berri bat ekarriko du, Negozio Unitate, Departamentu Zientifiko eta Aplikazio Eremuetan oinarritua, baita Baliabideen Departamentu batean ere; eta halaber Zuzendaritza Zientifiko berria eta Eragiketa Zuzendaritza izango du Berrikuntzaren Bulegoak, Marketing Departamentuak eta Kalitatekoak eskainiko dioten berriazko babesarekin.
- EAeko Administrazioaren laguntza mantentzea nekazaritza-politika publikoak gauzatzeko eta berrikuntza sustatzeko proiektu estrategiko propioen bidez. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari aktiboki laguntzea Azpisektoreetako I+G Plan Estrategikoak taxutzen eta garatzen.
- Estatuko merkatu-nitxoetan espezializatzea, esate baterako landareen eta abereen hobekuntza genetikoan, landareen eta abereen osasunean, elikagaien segurtasunean, ingurumenean, baliabide naturaletan eta bioteknologian.
- Ingurune tekniko-profesionalarekin loturak mantentzea, horrela enpresek sozietatearen jardura eta helburuetan parte-hartze handiagoa eduki ahal izateko. Era berean, I+G proiektuen bitartez teknologia ezagutzera eman dadila sustatzea hainbat enprekin elkarlanean, eta nekazaritzako elikagaien sektorean Oinarri Teknologikoa duten Enpresa berriak bultzatzea.

4. OBJETIVOS GENERALES PARA EL AÑO 2009 Y SU CUANTIFICACIÓN

OBJETIVOS GENERALES

Dentro del entorno de los servicios que realiza NEIKER los objetivos generales son:

- Proseguir con la consolidación del modelo de empresa a través de una gestión de carácter privado profesional de la sociedad, donde primen los parámetros de eficiencia, eficacia, costes, capacidad de producción, calidad, rentabilidad social y estrategia comercial. Para ello, se implantará en el año 2009 un nuevo Plan de Gestión acorde a la planificación estratégica aprobada para NEIKER, que se ha traducido en un nuevo modelo organizativo basado en Unidades de Negocio, Departamentos Científicos y Campos de Aplicación, así como un Departamento de Recursos; con una nueva Dirección Científica y Dirección de Operaciones, con el apoyo explícito de la Oficina de Innovación, el Departamento de Marketing y el de Calidad.
- Mantener el apoyo a la Administración de la CAE para ejecutar las políticas agrarias públicas y fomentar la innovación propia mediante proyectos estratégicos. Colaborar activamente en la elaboración y desarrollo en los Planes Estratégicos Subsectoriales de I+D que desarrolle el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación.
- Especialización en nichos de mercado estatal, como son la mejora genética vegetal y animal, la sanidad vegetal y animal, la seguridad alimentaria, el medioambiente, los recursos naturales y la biotecnología.
- Mantener la vinculación con el entorno técnico/profesional, lo que permitirá a las empresas participar más en las actividades y objetivos de la sociedad. Asimismo, impulsar la transferencia de tecnología a través de proyectos de I+D en colaboración con empresas y del impulso de Nuevas Empresas de Base Tecnológica en el sector agroalimentario.

- Erakunde osagarriekin itun estrategikoak egitea; eta lankidetzara areagotzea honako hauekin: Kudeaketa Tekniko-Ekonomikoko zentroekin, Lanbide Elkartekin, Foru Aldundietako Nekazaritza, Basogintza eta Abeltzaintza zerbitzuekin, ITSASMENDIKOIREkin, Unibertsitateekin eta Teknologia Zentroekin. Lankidetzara hitzarmenak egitea Estatuko, Europako nahiz munduko erakunde eta enprekin, EAEko nekazaritza sektoreko eremu nagusietan eragin handia izango duten I+G programak burutzeko.
- Kalitate Plana egitea, proiektuen kudeaketa eta aurrekontu-jarraitipenerako programak sendotuz, eta era berean, laborategiak kudeatzeko programa finkatuz. Horrekin batera, kalitate-sistema ezartzen jarraitu behar da, ISO9001 eta ISO17025 arauen bidez.
- Entzefalopatia Espongiforme Kutsakorren, Hegazti Gripearren eta Mingain Urdinaren kontrola egiten jarraitzea eta beharrezko azpiegitura sortzea kontrol horiek beste gaitz batzuei buruz ere egin ahal izateko, baldin eta Biosegurtasuneko P3 Maila duen laborategi eta animalia-etxeko inbertsioak justifikatzeko kontrol teknikoak eta segurtasunekoak egin behar badira. Edonola ere, ezaugarri horiek izango dituen laborategi bat behar-beharrezkoa dela jotzen da, eskuarki egin ohi diren zerbitzu-lanak eta ikerketa-lanak kontuan hartuta. Gainera, landare osasuneko kontrolak egingo dira, orain arte bezala, berrogeialdiko gaixotasunen kasuan 2. mailako biosegurtasuneko Landare Osasuneko Laborategi eta Negutegian.

1. INBERTSIO POLITIKA

Ekitaldi honetan egingo diren inbertsioak honexetarako izango dira:

- Garatu beharreko lan-ildo berrietarako; horrek ekipamendu eta teknologia berriak erabiltzea eskatzen du.
- Ekoizpen-ahalmena, kudeaketa, informazioa eta produktuen kalitatea hobetzeko eta kostuak murrizteko.
- Arkaute, Gauna, Iturrieta eta Derioko instalazioak eta garraio-bideak gehitu, mantentze-lanaz arduratu eta iraunarazteko.
- 2009. urtean instalazioak eta azpiegiturak hobetzen jarraituko dugu. Derioko zentroko Abere Osasuneko Eraikina eta Agroekosistema eta Baliabide Naturalen Eraikina eraberritzeko lanek aurrera jarraituko dute, eta baita ere Arkauteko instalazioetako Administrazio-eraikina zaharberritzeko lanek; hori dela-eta sail horietako langileria bulego berrietara aldatuko da. Bestalde, aurrerantzean ere teknologia handiko ekipamenduak erosi beharko dira ikerketa eta zerbitzu analitiko unitateetarako, NEIKER nekazaritza-probak egiten espezializatua baitago, eta baita kanpoko ekipamenduak ere. Iturrietako instalazioetan egokitze-lanak egingo dira energia berriztagarrien arloan garatuko diren jarduerak bertan kokatzeko.
- Edonola ere, baliabideak lehenetsi, ebaluatu eta esleitzea unean uneko aukeren analisien arabera egingo da, inbertitzeko benetako premia eta inbertsioak produktuei edota zerbitzuei eransten dien balioa kontuan izanda. Era horretan, gure lehiagoera hobetu egingo da, kostu txikiagoak eta epe laburragoak eskaintzeko modua izango dugulako eta lehiakideen artean nabarmenduko garelako.

- Desarrollar alianzas estratégicas con organismos complementarios. Intensificar la colaboración con los Centros de Gestión Técnico-Económica, Asociaciones Profesionales, Servicios de Agricultura, Ganadería y Montes de las Diputaciones Forales, ITSASMENDIKOI, Universidades y los Centros Tecnológicos. Establecimiento de Convenios de Colaboración con instituciones y empresas a nivel estatal, europeo y mundial para llevar a cabo programas de I+D que tengan repercusiones importantes en áreas claves del sector agrario de la CAE.
- Desarrollar el Plan de Calidad consolidando el programa de gestión de proyectos y seguimiento presupuestario, así como el programa de gestión de los laboratorios. Continuar con la implantación del Sistema de Calidad según la Norma ISO9001 e ISO17025
- Seguir con el control de las Encefalopatías Espongiformes Transmisibles, la Gripe Aviar y la Lengua Azul, sentando las bases para que estos controles puedan ser ampliados a otras enfermedades que requieran unos controles técnicos y de seguridad que justifiquen las inversiones en el Laboratorio y Animalario de Seguridad Biológica Nivel 3. Se constata la importancia de disponer de unas instalaciones de estas características dados los trabajos tanto de servicio como de investigación que se realizan rutinariamente. Asimismo, se seguirán realizando los controles de sanidad vegetal en aquellas enfermedades de cuarentena a través del Laboratorio de Sanidad Vegetal e Invernadero de Nivel de Seguridad Biológica Nivel 2.

1. POLÍTICA DE INVERSIONES

Las inversiones que se acometerán en este ejercicio están destinadas a:

- Establecimiento de nuevas líneas de trabajo, lo que implica nuevos equipamientos y tecnologías.
- Mejorar la capacidad de producción, gestión, la información, la calidad de los trabajos y reducir costes.
- Ampliación, mantenimiento y conservación de instalaciones en Arkaute, Gauna, Iturrieta y Derio y los elementos de transporte correspondientes.
- El año 2009 va a seguir estando marcado por la mejora de las instalaciones e infraestructuras, tanto físicas como informáticas. Se va a continuar con las reformas en el Edificio de Sanidad Animal y en el Edificio de Agroecosistemas y Recursos Naturales en el Centro de Derio, así como en el de Administración de las instalaciones de Arkaute, lo que supondrá la reubicación del personal de estos Departamentos en nuevas dependencias. Asimismo, es necesario seguir incorporando equipos de alta tecnología a las unidades de investigación y servicio analítico, así como equipos de campo, dada la especialización en ensayos agrarios de NEIKER. Las instalaciones de Iturrieta van a ser adaptadas para ubicar en ellas las nuevas actividades que se van a desarrollar en energías renovables.
- En cualquier caso, la priorización, evaluación y asignación de los recursos se realizará en cada momento a partir del análisis de oportunidades y teniendo presente la necesidad real de la inversión de que se trate, el valor que aporta a los productos o servicios y lo que supone de mejora de nuestra posición competitiva por reducción de costes, mejora de plazos o diferenciación de la competencia.

5. GASTUAK ETA INBERTSIOAK LURRALDEKA

2009. urtean NEIKER-en gastu eta inbertsioak ondorengo zentroetan egin dira: Derion (Bizkaia) eta Arkauten (Araba) dituen zentroetan, Iturrietako finkan eta Gaunako finkan. Jarraian zehazten dira kopuruak eta proportzioak:

5. GASTOS E INVERSIONES. CLASIFICACIÓN TERRITORIAL

Los gastos e inversiones de NEIKER en año 2009 se distribuyen en sus centros de Derio (Bizkaia) y Arkaute (Álava), la Finca de Iturrieta y la Finca de Gauna. Las cantidades y proporciones de los mismos se especifican a continuación:

AZALPEN CONCEPTO	BIZKAIA ZENBATEKOA BIZKAIA IMPORTE	%	ARABA ZENBATEKOA ARABA IMPORTE	%
Ustiapen gastuak Gastos de Explotación	7.892.546	56,20	6.151.054	43,80
Obrak eta eraikuntzak Obras y Construcciones	390.000	30,00	910.000	70,00
Ekipamendu zientifiko Equipamiento Científico	150.000	50,00	150.000	50,00
Altzariak Mobiliario	30.000	30	70.000	70
GUZTIRA TOTAL	8.462.546	53,75	7.281.054	46,25

6. 2009. URTERAKO AURREKONTUA**1. KAPITAL AURREKONTUA**

2009. urterako inbertsioak 1.700 mila eurokoak dira, Altzariak erosteko, Obra eta Eraikuntzetarako eta Ekipamendu Zientifikorako.

Inbertsioen finantzaketa Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak eman duen eta 1.700 euroko kopurua duen diru-laguntzaren bidez egingo da.

2. USTIAPEN AURREKONTUA

Ustiapen-sarrerei dagokienez, lehendabizi, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailatik jasotako ikerketa proiektuen defizitaren subentzioari dagozkion sarrerak daude.

Bigarrenik, beste erakunde batzuei egindako salmentak eta emandako zerbitzuak aurrekontuaren %8,71 dira.

Azkenik, beste administrazio (E.B. eta Estatutik) eta beste batzuetatik proiektuetarako datozen diru-laguntzak aipatu behar dira, aurrekontuaren %18,69 osatzen baitute.

Gastuen atala honelaxe banatzen da:

- Pertsonalaren gastuak %56,55a. Lehentasuna eman zaio NEIKER-eko langile-talde finkoa handitzeko helburuari lan-arloan indarrean dauden lege berriak betetzeko.
- Hornidurak eta erosketak, %8,71a.
- Beste ustiapen-gastu batzuk eta amortizazioak, %34,74a.

3. PLANTILLA**6. PRESUPUESTO PARA EL AÑO 2009****1. PRESUPUESTO DE CAPITAL**

Las inversiones para el 2009 ascienden a 1.700 miles de euros, destinadas a la adquisición de Mobiliario, Obras y Construcciones y Equipamiento Científico.

La financiación de las inversiones se realizará mediante Subvención en capital librado por el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación por importe de 1.700 miles de euros.

2. PRESUPUESTO DE EXPLOTACIÓN

Respecto a los ingresos de explotación, en primer lugar, corresponden a los ingresos obtenidos como subvención del déficit de los proyectos de investigación librado por el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación.

En segundo lugar, las ventas y prestación de servicios a otras entidades representan el 8,71%.

Por último, las subvenciones por proyectos provenientes de otras administraciones (UE. y Estatal) y otros con el 18,69% del presupuesto.

El apartado de gastos es como sigue:

- Los gastos de personal representan el 56,55%. Se considera prioritaria la ampliación de la plantilla de personal fijo de NEIKER para cumplir las nuevas leyes vigentes en materia laboral.
- Aprovisionamientos y compras suponen el 8,71%.
- Otros gastos de explotación y amortizaciones, el 34,74%.

3. PLANTILLA

2009ko abenduaren 31an aurreikusitako sozietatearen plantilla, une honetan, lan-kategorien arabera zehaztuta, honako hau izango da:

La plantilla estructural de la sociedad prevista al 31 de diciembre del 2009, en el momento presente, reflejada por categorías laborales será la siguiente:

